

IRAKASKUNTZA-GIDA

2019/20

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25957 - Gatazken Eraldaketarako Trebetasunak

ECTS kredituak:

4,5

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Gatazken Eraldaketarako Trebetasunak ikasgaia, Hautazkoak: Gatazken esku hartzea eta Gatazken eraldaketa (F-1) moduluan kokatuta dago. Modulu honetako beste 5 ikasgairekin batera, Gatazken teoría eta analisisa, Bake Kultura, Gatazken eraldaketarako metodoak eta teknikak, Emakumeen kontrako biolentzia: Prebentzioa eta esku-hartzea eta Bitartekaritza eta Gizarte Langintza.

Hirugarren mailako ikasgaia da eta lehenengo lauhilabetean ematen da. Ikasgai hautazkoa da eta euskaraz, erderaz eta ingeleraz eskeintzen da. 4,5 Ects-eko ikasgaia da, presentziako orduak eta ez presentziarazko. Irakasgaiaren dozentzia Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologiari dagokio.

Irakasgai honetan honakoa ikasten da: Pertsonen arteko komunikazioari eragiten dioten elementu emozionalen eta kognitiboen ezagutza. Komunikazio-prozesuko elementuen azterketa, baita komunikazioko estilo pertsonalen eta kulturalen azterketa ere pertsonen arteko gatazka-iturriak diagnostikatzen jakiteko. Komunikazio-gaitasunak ezagutu eta aplikatzea, gatazkek konpontzen jakitea eta lan arloko estres-egoerei aurre egitea; taldean lan egiteko gaitasun profesionalak izatea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Komunikazioari eta pertsonen arteko gatazkei eragiten dieten faktore psikologikoak, kognitiboak eta emozionalak ezagutu eta identifikatzea. (M05CM01).
2. Gatazken kudeaketan emozioak kontrolatzeko eta erregulatzeko moduak aplikatzen jakitea eta identifikatzea. (M05CM02).
3. Gatazka- eta negoziazio-prozesuetan parte hartzen duten faktore sozio-kognitiboak identifikatzen jakitea. (M05CM02).
4. Taldean komunikatzeko, taldean lan egiteko, gatazkek konpontzeko eta negoziatzeko, eta egoera emozionalei aurre egiteko gaitasun sozialak ezagutzea; horiek etorkizuneko praktika profesionalean komunikazio-estrategia eraginkorrak garatzeko aukera emango dute. (M05CM08).
5. Jarduera profesionalerako beharrezko gaitasunak garatzea, kritika eta gogoeta egiteko gaitasuna nabarmenduz, baita komunikatzeko, harremanetarako, taldean lan egiteko eta sarean lan egiteko gaitasuna ere, generoa, kulturartekotasuna, landatar mundua eta abarrekin lotutako ikuspegiak txertatuz, etab. (M05CM08).

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. gaia. -Emozioak gatazka- eta negoziazio-prozesuetan.
2. gaia. -Pertsonen arteko komunikazioa gizarte-lanean.
3. gaia. -Faktore sozio-kognitiboak gatazka- eta negoziazio-prozesuetan.
4. gaia. -Kulturala eta gatazken kudeaketa.
5. gaia. -Gaitasun sozialak gatazken kudeaketan.
6. gaia. -Komunikazio-gaitasuna eta egoera emozionalei aurre egitea.

METODOLOGIA

Ebaluazio sistema jarraia izango da, beraz asistentzia derrigorrezkoa da.

Ikasgai honetan metodologia mota ezberdinak uztartzen dira:

Programa teorikoa: eskola magistralak.

Ikasgelako praktikak: Lanak egitea eta aurkeztea. Parte-hartzea, asistentzia, kasuen simulazioa eta rol playing ekintzak.

Beharrezkoa asistentzia eta parte-hartzea ekintzetan.

Ezinbestekoa da irakasgaia gainditu ahal izateko idatzitako proba gainditzea.

Praktika ataleko nota gordeko da idatzitako proban huts egitean eta praktikak gaindituak dituztenen kasuan.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduek	33,75		11,25						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	50,5		17						

Legenda:

M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 80

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

"Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3.- Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.2 art.).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian ikasgaia gainditzeko baldintzak lehen deialdiko berak izango dira. Deialdietan azterketak osaera berekoak izango dira, eta ikasleek lauhilekoan zehar ebaluazio "jarraitu"aren baitan irabaziriko puntuak aintzat hartuko dira ezohiko deialdian ere (ez, ordea, hurrengo deialdietan).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Egela plataforma birtualean ikasturtean zehar argitaratuko diren materialak ("power point"-ak, ariketak, testuak, etabar.)

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Antons, K. (1990). Práctica de la dinámica de grupos. Barcelona, Herder.
- Costa, M. & López, E.(1997). Los secretos de la dirección. Madrid, Pirámide.
- Hogg, M. A. & Vaughan, G. M. (2010). Psicología social. Madrid, Panamericana.
- Myers, D. G. (1995). Psicología social. Madrid, McGraw-Hill.
- Munduate, L. & Medina, F.J. (coord.) (2005). Gestión del conflicto, negociación y mediación. Madrid, Pirámide.
- Páez, D., Apodaca, P., Basabe, N., Ubillos, S. et al. (2008). Entrenamiento en Competencias de regulación emocional para profesionales del ámbito socio-comunitario de Guipúzcoa 2008. Donostia, Facultad de Psicología.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK

Zuzenketa ortografiko, gramatikalak eta idazkera desegokia gutxiegia arrazoi izango dira.

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia" (3. puntu, or.5).

"UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkkotzat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, ignoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntu).